

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**586/2024 Foru Agindua, azaroaren 25ekoa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako lanbideetako langileen klasean (gidariak, C taldea, C2 azpitaldea) karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesu baitagokio (2022ko EPEa)**

Abenduaren 7ko 572/2022 Foru aginduaren bidez, onespena eman zitzaizen Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Azaroaren 20ko 566/2024 Foru Aginduaren bidez, karrerako funtzionarioa izendatu zen administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako lanbideetako langileen klasean (gidariak, C taldea, C2 azpitaldea) sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuari baitagokio (2022ko EPEa).

Azaroaren 22ko 580/2024 Foru Aginduaren bidez, karrerako funtzionario izendatutako pertsona borondatezko eszedentzia deklaritzen da.

Arabako Foru Aldundiko administrazio orokorreko karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua arautzen duten 2022ko lan-eskaintzako oinarri orokorretan (8.2. C) aurreikusitakoaren arabera, epaimahai kalifikatzaileak proposamen gehigarria egin du prozesua gainditu duen izangaia izendatzeko. Beraz, karrerako funtzionario izendatu behar da eskala honetan: administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako lanbideetako langileen klasean, gidariak, C taldea, C2 azpitaldea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horrez gain, Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritik, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatzea, administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako lanbideetako langileen klasean (gidariak, C taldea, C2 azpitaldea) sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuari baitagokio (2022ko EPEa), hura gainditu duten izangaiak, ondoren adierazten diren lanpostuei atxikita:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
IÑAKI MONTOYA PEÑAGARICANO	Korporazioko Auto-gidaria	1551.005

Bigarrena. Izendatutako pertsonak 2024ko abenduaren 4an jabetu beharko dute esleitutako lanpostuez.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiaren funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak adjudikatutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikularekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 25a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,  
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR